

**2009ko URRIAREN 1ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko urriaren 1ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.45 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:  
- 2009ko irailaren 3an egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Tolosaldea Garatzen 2009ko 2. Seihilabeteko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 4. Larraulgo Udala eta Pello Errota ikastetxeko Murgil Guraso Elkartearen arteko hitzarmenaren onespena, hala bada.**
- 5. Sorozelai lursailean barne bide baten egokitzapena eta kanpo itxitura egiteko baimena eskaera, I.A.**
- 6. 2009-2010 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2009 urteko irailaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei jakinarazten die ez dela azkeneko Udalbatzarretik Alkate ebazpenik eman.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **TOLOSALDEA GARATZENI 2009ko 2. SEIHILABETEKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek bidalitako idatzia, non 2009ko urtarrilaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten den Larraulgo Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena, guztira 4.095,00.- euro direlarik. Lehen zatiaren ordainketa 2009ko martxoaren 30ean egin zen, bigarren zatiaren ordainketa egin beharko delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa onartzea, bere zenbatekoa 2.047,50.- euro direlarik.

BIGARRENA: 2.047,50.-euroko gastua onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO UDALA ETA PELLO ERROTA IKASTETXEKO MURGIL GURASO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udala eta Pello Errota ikastetxeko Murgil guraso elkartearen arteko hitzarmena prestatuta dagoela, bertan arautuko da, Murgil Guraso Elkarteak, harreskola eta eskolako garbitasuna gauzatuko dutela eta zaintza zerbitzua euren gain

hartzen dutela eta gainera urtean zehar hurrekin lotuta izango diren hainbat ekintza antolatu beharko dituztela, Larraulgo Udalak, aldiz, guzti honengatik 9.000,-eurotako ekarpena burutuko die Murgil Guraso Elkarteari.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Larraulgo Udalaren eta Pello Errota ikastetxeko Murgil Guraso Elkartearen arteko hitzarmenaren onespena, non arautzen den, Murgil Guraso Elkarteari haurreskola eta eskolaren garbitasunetaz arduratuko direla, zaintza zerbitzuaz eta urtean zehar hurrekin loturik izango diren hainbat ekintza antolatzeaz. Aldiz, Larraulgo Udalak guzti honegatik Murgil Guraso Elkarteari 9.000,00.-eurotako ekarpena burutuko die. Hitzarmena akta honi atxikitzen da.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola jaunari, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

#### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **SOROZELAI LURSAILEAN BARNE BIDE BATEN EGOKITZAPENA ETA KANPO ITXITURA EGITEKO BAIMENA ESKAERA, I.A.**

Ikusirik I.A. jaunak eginiko eskaera, non Sorozelai lursailean barne bide baten egokitzapena eta kanpo itxitura egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2009ko irailaren 29an Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean jarritakoa:

#### ***“LARRAULGO SOROZELAI LURSAILEAN BARNE BIDE BATEN EGOKITZAPENA ETA KANPO ITXITURA EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA”***

*“I.A.U. jaunak, Larraulgo bere lursailean barne bide baten egokitzapena eta kanpo itxitura bat egiteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu eta plano bat aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Eskarian eta aurrekontuan, jarri nahi den itxituraren deskribapena ematen da. Hesia, sare metaliko eta hormigoizko zimendu jarraitu batez osatua egongo da eta sare metalikoak 1,56 m ko altuera izango du.*

*Bordaren atzealdean dagoen lurra lautu nahi da eta zabalgunek honetatik irteera erosoagoa izan dadin, barne bide berri baten egokitzapena eskatzen da.*

*Zabalgune eta bide berriaren aurrean, paisaiaren eragina murriztearren, zuhaitzez osaturiko itxitura bat proposatzen da ere.*

*Sorozelai izeneko lursaila Larraulgo kanposantuaren ondoan kokatzen da, lur ez hiritargarriaren barruan.*

**Larraulgo 49º artikulua** urbanizazio baldintzak eta ingurunearen tratamenduak arautzen ditu. Honela dio:

*Artículo 49.-Condiciones de urbanización y de tratamiento del entorno.*

.....

*-Dentro de esta categoría de Suelo se aconseja que no se cierren las fincas, siendo preferible mantener o restituir los cierres primitivos, particularmente cuando se refieren a cierres vegetales y muretes de piedra.*

*-En el caso de levantamiento de cierres, estos serán preferentemente de piedra, raseados y pintados, **metálicos**, de estacas y alambre y vegetales, prohibiéndose los muros de hormigón vistos de baja calidad y los de bloque de hormigón no raseados.*

*-En cualquier caso, la altura de los cierres ciegos, incluidos los de arbolado tupido, no será superior a 1,20 mts. **Los cierres vegetales continuos no superarán en ningún caso la altura de 1,80 mts.** En los límites con caminos públicos será de aplicación las distancias señaladas en la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa de 25 de noviembre de 1994.*

*Artikulu berdinean azaltzen den 1994-ko bideen foru araudia indargabetua gelditu da, gaur egun 1/2006 foru-dekretua erabili behar delarik. Bertan, mota honetako itxitura arinek herri bideetara gorde behar duten distantzia metro batekoa izan behar dela esaten da.*

*Beraz, itxituren erabiltzen den materiala eta altuera Larraulgo araudiarekin bat datorrenez, eta herri bidetik 1 m-ko distantzia mantentzen bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.”*

Gaia aztertutik, Udaltza honek, Iñigo Aginalde zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.A.U. jaunak eskatutako obra baimena onartzea, hau da, Larraulgo Sorozelai lursailean barne bide baten egokitzapena eta kanpo itxitura egiteko obra

baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENGOA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **2009-2010 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2009-2010 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2009-2010 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzak euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

|                               |           |
|-------------------------------|-----------|
| OSTARBI                       | 23.502,64 |
| EINBER                        | 437,87    |
| PREFABRICADOS ITURRIA         | 182,70    |
| ARRATE IRRATIA                | 104,40    |
| ARGITU ASESORES               | 105,68    |
| DISTRIBUCIONES LOPETEGI       | 102,76    |
| GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA | 73,50     |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL         | 79,72     |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL         | 398,04    |
| TELEFONICA                    | 67,53     |
| TELEFONICA                    | 16,21     |
| TELEFONICA                    | 22,77     |

|            |        |
|------------|--------|
| TELEFONICA | 87,47  |
| EUSKALTEL  | 115,25 |
| IBERDROLA  | 119,20 |
| IBERDROLA  | 47,32  |
| IBERDROLA  | 226,68 |
| IBERDROLA  | 26,90  |
| IBERDROLA  | 16,36  |
| IBERDROLA  | 137,17 |
| REPSOLGAS  | 7,56   |
| REPSOLGAS  | 43,37  |

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **25.921,10** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA